



Digitalde
/eginaz ikasi

COACHING TEKNOLOGIKOA

Prestakuntza

eta gaikuntza teknologikoa



1 ALDATZEA EZ DA ERRAZA IZATEN

COACHING TEKNOLOGIKOA

Prestakuntza eta gaikuntza teknologikoa



Teknologia, oro har, eta bereziki Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) profesionalen eta enpresarien zereginen ardatz bihurtu dira, baita pertsonen arteko eta Administrazioaren eta herritarren komunikazioaren ardatz ere.

Horien inguruko oinarrizko ezagutza eta funtsezko gaitasunak garatzea funtsezko helburua izan zen 2000. urteko hamarkadaz geroztik antolatutako alfabetizazio digitalaren garaian. Gaur egun, helburua lotuago dago teknologian eta mundu digitalean trebatuta dauden pertsona horien **PRESTAKUNTZA ETA GAIKUNTZAREKIN** eta horien lana ingurune gero eta globalago batean egitearekin, lehen ikasketa-prozesu luze eta latz baten ondoren ikasten zena Interneteko klik bakar batez eskuratu ahal izateak dakartzan abantaila guztiekin.

Mundu digital honetara egokitzea ez da batere prozesu erraza, egiteko moduak eta izateko eta egoteko moduak aldatzea dakarrelako. Aldatzea ere ez da erraza, eta normalean, barruko erresistentzia sendoak iratzartzen ditu gure baitan, gure ezagutza, ahalmen eta erosotasun-guneetatik irtetearen aurka. Honelakoetan behar dugu coach baten zeregina.



1 ALDATZEA EZ DA ERRAZA IZATEN

COACHING TEKNOLOGIKOA

Prestakuntza eta gaikuntza teknologikoa



Digitalden uste dugu, aldatzeko eta egokitzeko prozesu hauek sustatu, lagundu eta erraztu behar direla, teknologia esparruko nahiz coaching eta pertsonen kudeaketako ikasketa eta prestakuntza prozesuetan trebatuta dauden profesionalen laguntzaz. Hortik baino ezin da laguntza eta akonpainamendua eskaini, aldez aurretik eta elkarren artean diseinatutako bidearen helmugara iristeko behar diren gaitasunak eta trebetasunak garatu ahal izateko. Ondorioz, **prozesua** honela garatu behar da:



laguntza eta akonpainamendua eskainiz, ikasketa-erritmo eta beharizan desberdinekiko errespetuaz.



pertsonari, eginkizunari, erakundearen asmoari edota erakundearen helburuei **egokituta**

ANALISIA
ELKARLANA ERABILGARRITASUNA
KOMUNIKAZIOA HAZI
COACHING TEKNOLOGIKOA
LANKIDETZA ENPRESA
ESTRATEGIA ESPERIENTZIA
FEEDBACK PERTSONAK
IKASKETA

2 LAGUNDU AHAL DIZUGU

COACHING TEKNOLOGIKOA

Prestakuntza eta gaikuntza teknologikoa



Coaching teknologikoa, beraz, pertsona, talde edo erakundearen eta erraztailearen arteko lankidetzatza-prozesu bat baino ez da guretzat.

Coaching Teknologikoa honela ulertuta, Digitaldetik eskaintzen dizugun zerbitzu honen bidez, mundu informatiko eta teknologikoak pertsona bezala, profesional independente bezala nahiz erakunde-sare bateko kide bezala eskaintzen dizkizun aukera guztiak inplementatzen eta aprobetxatzen ikasiko duzu.

1

Informatiko berrien sarrerak eragin dezakeen **teknologia eta aldaketaren beldurra** gaingiditza.

2

Gaitasun teknologikoetan duzun erabilera pertsonal nahiz profesionaleko **prestakuntza** handitzea. Zure lanpostuaren premietara egokitzen gara. **Behar duzuna ikasten duzu.**

Horregatik eskaini nahi dizkizugu zerbitzu hauek:

1

Egun darabiltzazun eta eguneratu edo hobetu nahi dituzun prozesu teknologikoetan laguntzea.

2

Profesional independenteek, saltoki tradizionalei, erakunde sozialei eta enpresei laguntza ematea, **Sareko presentzia** inplementatzeko eta 2.0 **Komunikazioarekin** zerikusia duen guztia (webgunea, sare sozialak, prestatu beharreko materialak...) kudeatzeko erabili beharreko **tresna digitalak txertatu, kudeatu eta ahalik eta ongien ustia ditzaten.**

3


Ahalduntze teknologikoa diseinatu, erraztu, lagundu eta dinamizatzea:

- **herritarren artean, herritartasun digital osoaz profitatu ahal daitezen** (ziurtagi digitalen, parte-hartze plataformen, ordainketa-plataformen leihatila birtualen eta abarren inguruko gaikuntza)
- **gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsona eta taldeen artean**, egitura sozial eta politikoan parte hartzeko motibazio handiagoa izan dezaten.

3 GURE METODOLOGIA

COACHING TEKNOLOGIKOA

Prestakuntza eta gaikuntza teknologikoa




Digitaldek Coaching Digitaleko zerbitzu honetarako erabiltzen duen metodologia, gure zerbitzu guztiak bezalaxe, pertsonei, premiei eta lortu beharreko helburuei egokitutako akonpainamendu erabat pertsonalizatuan oinarrituta dago. Honela erakutsi ahal dugu:

Zer egiten dugun



Nola egiten dugun



Ikasketa-prozesu guztietan, online esparruak sortu ohi dira (wikia, bloga, sitea, google groups, sare sozialetako taldeak, etab.), topaketa presentzialen zentzua osatuz eta coaching teknologikoa lan kolaboratiboa bihurtuz. Saioak dokumentatu, erabilitako materialak partekatu, tresnak proposatu eta ikasketa eta praktika komunitate bat sortu ohi da, gure egin beharra amaitzen denerako. Guztion artean, zalantzak azaldu eta argitzen dira, ezagutza era partekatuan eraikiz.

Norekin egiten dugun



4 GURE ESPERIENTZIA

COACHING TEKNOLOGIKOA

Prestakuntza eta gaikuntza teknologikoa



“*Duela zenbait urtez geroztik, Aneren laguntza dut nire enpresa garatzeko behar-beharrezkoak diren alderdien inguruko gaietarako, eta gerora ere horren laguntza izatea espero dut! Anek, gaitasun teknologiko handi-handia izateaz gain, gauzak era enpatikoan adierazteko gaitasuna ere badu, ezinbesteko dugun mundu hau menperatzen ez dakigun ni bezalako pertsonen larruan jarriz. Haren pazientzia eta tratu txeratsua ere nabarmenduko nituzke, ingurune hau askoz ere adiskidetsuagoa bihurtzen baitute”*



EMANA

emana.net

Maria Carrascal
Emanako Zuzendaria

“*Nire kasu partikularrean, Digitaldez hitz egitea Ane izeneko pertsona handi batez hitz egitea da, nire coach teknologikoa baita. Beraren laguntzari esker, teknologiaren ikasketaz gozatzen ari naiz (nahiz eta teknologia ez zaidan inoiz erakargarri suertatu). Arreta egiten die nire beharrazineiei eta nire ikasketa-erritmoari, eta beharrezko ditudan tresnak ematen dizkit, behar ditudanean edo baliagarriak izango zaizkidala aurreikusten duenean. Hori guztia, laztantasan eta profesionaltasun handiz. Nork eman dezake gehiago? Zorionak, Digitalde, lan handi honengatik! Oso atsegina da ikastea eta gauzak egiten ausartzea esku onetan gaudenean”*



eremuak.net

Lydia Lomas
Eremuak proiektuaren komunikazio arduraduna

5 DIGITALDE GARA

COACHING TEKNOLOGIKOA

Prestakuntza eta gaikuntza teknologikoa



Digitalde Galdakaon (Bizkaia) finkatutako komunikazio digitaleko enpresa da, aholkularitza digitala, prestakuntza eta gaikuntza teknologikoa, eta Interneteko presentziari buruzko estrategia (social media eta marketina) bezalako zerbitzuak eskaintzen dituena.

Digitalde izena bi hitz hauen arteko batura da: **digital + talde**. Hau da, ingurune **digitaletako** proiektuetan integratzen den **taldea** gara.

Sarean lan egiten duen **enpresa irekia** gara. Ondorioz, parte hartzen dugun proiektuen eskura jartzen ditugu Sare hau osatzen duten profesionalak, hainbat esparrutan, aholkularitza diseinu grafikoraino, esperientzia eta ezagutza zabala dutenak.

Gure lanak **artisans aholkularitzaren** filosofia du oinarri, gauzak ondo egitearen harrotasunari atxikita. Gure balio diferentziala, proiektu bakoitza lantzeko erabiltzen dugun mimoarekin lotuta dago, proiektu guztietarako gauza bera egitea dakarten estandarretatik ihes eginez, baita profesionaltasunarekin ere, lankidetzeta bakoitza proiektu paregabea bihurtuz.

Hementxe gauzazu:

Digitalde Comunicación en Red S.L.


Bizkai kalea 38, B solairuartea, 2. moduloa
48960 Galdakao (Bizkaia)

Tfn: 652724637

Web: www.digitalde.eus

Email: info@digitalde.eus

Twitter: [@digitaldeON](https://twitter.com/digitaldeON)



6 TALDEA ETA SAREA

COACHING TEKNOLOGIKOA

Prestakuntza eta gaikuntza teknologikoa



Digitaldeko taldea 3 pertsona hauek osatzen dugu:



Naiara Pérez de Villarreal

Hedabide sozialetan eta marketin digitalean espezializatutako Artisau Aholkularia, eta Internet eta tresna digitaletan espezializatutako aholkularia.

naiara@digitalde.eus
@naiarapzv



Mikel Sánchez

Sare sozialetako aholkularia eta Social Media Strategist. Edukien elaborazioa, analitika, bilatzaileetako posizionamendua (SEO) eta SEM (Google Adwords-eko ziurtapena)

mikel@digitalde.eus
@mikelsb




Ane Martínez Recio

Internet eta tresna digitaletako aholkularia, prestakuntza, gaikuntza eta coaching teknologikoan trebatutako aditua.

ane@digitalde.eus
@kizkur


Hauetz gain, gurekin batera lankidetzan jardun ohi duen profesional-sare sendoa dugu, honako pertsona hauek tarteko dituen, besteak beste:




Julen Iturbe-Ormaetxe
Artisau aholkularia



Itxaso Diaz
Bideasta eta dokumentalista



Asier Etxebeste
Aholkularia eta programatzailea



Maika Prado
Diseinatzailea eta ilustratzailea



digitalde

/eginaz ikasi